

Beste iturrietatik

Ikasleen joko-jolasak*

Lorraine Weller

Lorraine Weller-ek Analisi Transakzionalaren printzipioez hitz egiten du; psikologiaren adar honek ikasleen klaseko portaera hobeto ulertzen lagun diezaguke.

Duela urte batzuk, Londreseko hizkuntz eskola handienetako batean EFL (ingelesa atzerritarrei) irakasten ari nintzela, ia neure buruaz beste egitera eraman ninduen ikastalde bat eman zidaten.

Ezerez nuen ongi egiten beraiekin. Antzerako mailako beste talde batzuetan emaitza onak baino hobeak emandako klaseek porrot egiten zuten talde hartan. Inork ez zuen barrerik egiten nire txisteekin. Bikoteka edo taldeka lanean jartzeko ahalegin guztiek erabateko laguntza-faltaz topo egiten zuten. Etsi-etsi eginda nengoen.

Egunero, irakasle-gelan, neure dilemaren azalpen monotonoen asper erazten nituen lankideak. Azkenean, ni isilerazteko ahalegin ausartaz, irakasle lagun batek –unibertsitatean psikologia ikasitakoa– liburu bat aurkeztu zidan eta lehen letratik azkeneraino irakurtzeko aholkatu. Gau hartan, etxera joan eta haren aholkuari jarraitu nion.

Irakurri ahala, poliki-poliki ulertuz joan nintzen zer zegoen oker nire klasean. Are gehiago, irakurtzen jarraitu nuen heinean, egoera aldatzeko zer egin nezakeen ulertu nuen. Ezin izan nuen lo askorik egin gau hartan; klasera itzuli eta ezagupen aurkitu berriak aplikatzeko irrikaz nengoen.

Ikuspegi berri garrantzitsuak

Liburu zoragarri haren izenburua *Games People Play* (Jendearen jokoak) zen, Eric Berne-k idatzia (Penguin). Lehenengoz 1967an agertu zen Ingalaterran eta zertxobait gogoratzen nuen orduan sortu zuen interesaz, baina ez nuen inoiz irakurri. Nahiz eta *Games People Play* bestseller bat izan mundu osoan zehar, halere, liburu serioa zen. Lehen aldiz publiko orokorrari aurkezten zizkion psikologiako adar berri garrantzitsu baten –Analisi Transakzionalaren– printzipioak.

Sei hilabete geroago, konpainia multinazional baten eskutik lanean ari nintzela europar manager batzuei ingelesa irakasten, harrituta geratu nintzen konturatzean liburu hartako printzipio asko aktiboki aplikatzen zirela konpainiako trebatze-ikastaroetan. Azkenean, enpresetako trebatze-mintegietan Berneren teoriak sarri erabiltzen direla ohartu nintzen; hain zuzen ere, jakina bait da jendeak elkar ondo hartuta lan egiten duenean, lan gehiago egiten dela. Noski, konpainiek lortu ahal dituzte psikologo-taldeak pertsonalarekin lan egiteko. Eskoletan ez gara hain zori onekoak izaten.

Games People Play-ren hasierako zirrara desagertu zenean, liburuaren gauzarik liluragarriena beraren oinarrizko zentzua zela hasi nintzen ohartzen. Jendearen –gizabanako nahiz taldeen– portaerari buruzko Berneren konklusioak eta sena eta eskarmentua dituen edozein irakaslerenak berdinak dira, nire ustez. Honek ez die inola ere ezer kentzen haren ikuspegi zorrotzei, beraren meritua bait da egunero ikasgelan ikusten dugunari buruz hitz egiteko terminologia arrunta eman izana. Halaber, bere behaketa luze-zabalen bidez, geuregan eta besteengan aurkitzen dugun portaera-arazo askori zenbait konponbide ematea ere lortu zuen.

Artikulu honek Analisi Transakzionalaren teoria nagusienei buruzko sarrera laburra izan nahi du, baita gure irakaslanari nola eragiten dioten aipamena ere. Beste irakurketa batzuk egiteko proposamenak artikuluaren bukaeran aurkituko dira.

Joko transakzionalak

Bernerren pentsaeraren muinean zera dago: jendea beti jokoan ari dela elkarren artean. Joko hauetako batzuk nahiko kontzienteak dira: partehartzaileek ezagutzen dituzte arauak eta adi eta erne sartzen dira jokoan, horrela aitortu ala ez. Mota honetako jokoak famili barnean egiten dira sarri askotan, non harremanak denboraldi luzean zehar izan diren eraikiak.

Honelako joko tipikoetariko bat Bernek “Beragatik ez balitz...” deitzen duena da. Adibide honen bidez argitzen du: White andrea kexatu egiten da senarrak ez diolako inoiz dantzan ikasten utzi. Halako batean, utz diezaion konbentzitzen dute senarra. Dantzan ikastera joaten da andrea, eta orduan jakiten da dantzalekuei beldur diela benetan. Bernek dioenez, emakume honek gizon dominatzailea aukeratu zuen senartzat. Horrela, bere desegokitasun askoren errua senarrari botatzeko egoeran zegoen: “Zuregatik ez balitz...”. Joko honen aldagai bat ere egin zezakeen lagunekin: “Beragatik ez balitz...”

Adibide honekin ikus daitekeenez, gure jokoetariko asko ez dira txantxetakoak izaten. Hona zer dioten Bernek gai honetaz: “Gizarte-iharduera gehiena joko hutsa dela esateak ez du derrigorrez esan nahi gehiena “txantxetakoak” denik edo jendea ez denik harreman horietan benetan konprometitzen. Bestalde, futboleak eta beste “joko” atletiko batzuetan “aritzea” agian ez da batere txantxetakoak izango, jokalariek oso basati ihardun bait lezaket, eta horrelako “jolasak” –dirujokoa eta beste “jolas”-modu batzuk bezalaxe– benetan oso serioak izan litezke, batzuetan heriotzekarleak”.

Klaseko jokoak

Heriotza ekartzen duten joko-motak ikasgelan ematen ez badira ere –hori behintzat espero!–, beste mota askotakoak bai, ordea.

Demagun “Tontoa”ren jokoak, adibidez. Baliteke sarri askotan zuk honekin topo egin izatea klasean, benetan tontoak bailiran agertu nahi duten ikasleren batzuen jokoarekin, hain zuzen. Oinarrizko erroreak egiten dituzte, zentzugabeak direnak; idazlanak, egiten dituztenean, axolagabeki egiten dituzte, eta ahalik eta gutxien parte hartzen dute klaseko ekintzetan. Irakasle arduratsuak garenez, ahal dugun guztia egiten saiatzen gara horrelakoak motibatzeke, baina sarritan buruaz horma jotzea bezala dela ohartzen gara. Analisi Transakzionalaren ikuspegitik, portaera horren azalpena ondorengo hau litzateke.

Jende-taldeek elkarrekin tratatzen dutenean, harreman horietatik abantailak edo irabaziak ateratzea da pertsona bakoitzaren helburua.

Batzuek uste izaten dute besteeikiko atsegin eta errespetagarri izanez lortuko dutela hori. Honelakoak “zuhur”, “heldu” eta “motibatu”tzat identifikatzen ditugu ikasgelan. Baina beste batek, oharkabea agian, oso erraz jo dezake portaera negatiboaren bidez bere helburuak lortzera. Honela, “tonto”tzat har dezaten nahiko du ikasle horrek. Ohar gaitzeen jarrera horren bidez lortzen dituen abantailak. Ez du lan egin beharrik, prest bait du aitzakia ederra nota txarrak ateratzeko; bazterturik daude edozelako esfortzuak. Beraz, ikasle batzuk klasean “motibatuta” daudela edo “ingelesean onak” direla aitortzen dugunean, gizarte-jokoan partehartzen ari gara, hizkuntza irakasten ari garen beste. Era berean, gure ikasleatariko batzuk “tontoak” direla onartzean, benetan jokoak galtzen ari gara, aitorpen horrekin izugarrizko irabazia lortzen bait dute gurekiko tratu edo harremanetan.

“Tonto”aren edo antzerako beste jokoren batean jolastu nahi duten ikasleen proportzio handia duen klaseaz *talde-dinamika txikia* duela esan daiteke. Arazoen egoera honek ez du irakaskuntza eraginkorrik bultzatzen. Beraz, irakasleak terapeutaren rola ere hartu behar duela esan nahi al du honek? Ba, esango nuke gure arteko askok berez egiten dugula hori. Ohartzen gara jokoan ari direla eta horren arabera erreakzionatzen dugu, eskarmentuaren bidez ikasiz noiz sartu jokoan edo noiz uko egin sartzeari. Baina Analisi Transakzionalaren ezagutza oso baliotsua da, zehatz azaltzen dituelako ohizko jokorik gehienak, baita berauekin nola moldatu jakiteko Bernek eta beraren lankideek aurkituriko modurik egokienei buruz aholkuak ematen dituelako ere.

Ego-aren egoerak

Halaber, Analisi Transakzionalak, irakasle-ikasleen arteko harremanei buruz ere ematen du argibide lagungarriak, argibide horiek irakaskuntza eta ikaskuntzako alderdi humanistiko eta komunikatiboei buruzko azken pentsaeraren ildotik doazelarik. Analisi Transakzionalan esaten denez, errealitate psikologikoaren hiru egoera ezberdin daramatza bere baitan gizaki bakoitzak. Hauek ez dira guk jolasten ditugun jokoak, gure benetako parteak baizik. Guztiok sartu edo irten gaitzke egoera hauetatik, batzuk beste batzuk baino errazago. Arruntki, honela deitzen ditu Bernek egoera hauek: Guraso-, Heldu- eta Haur-egoera. Analisi Transakzionalaren

terminologian, letra maiuskulaz idazten dira beti. Egoera hauen arteko erlazioa diagrama baten bidez irudikatzen du (.1):

.1:
Egoa: hiru
egoeren arteko
erlazioa



Egoera hauen errealitate psikologikoa gure arteko bakoitzak gurasoak (edo berauen ordezkioak) badituelako edo izan dituelako existitzen da. Eta beraiek eta beraien eragina guk geure baitan eramaten dugu beti. Bestalde, denok izan gara ume eta esperientzia hori ere geure barnean daramagu.

Heldu-egoera gure baitako parte lojiko da, etengabe aurkezten zaizkigun datuak objektiboki prozesatzen dituen. Parte hori da dakiena, nora goazen begiratu gabe trafiko handiko errepidera irteten bagara, seguraski hil egingo garela. Bernek zehazki esaten du gizaki bakoitzak, ume eta buru-atzeratuak barne, helduaren parte bat duela bere nortasunean. Helduarena da, halaber, estresaturik gabiltzanean bizkorren desagertzen zaigun apurra.

Ongi orekaturiko pertsona erraz mugitzen da egoera hauen artean, momentu bakoitzerako egokiena denaren arabera erreakzionatuz. Guraso-egoerak bi alde ditu: zuzeneko eta zeharkakoa. Zerbaiten aurrean geure gurasoek benetan jokatuko luketen bezalaxe jokatzeko moduan, zuzeneko egoera egoten da ihardunean. Haiek guk jokatzeko moduko luketen moduan jokatzeko moduan, zeharkako egoera dago ihardunean. Esate baterako, errepidean oso istripu txar bat ikusi eta neure begiak itxiz eta botaka eginez erreakzionatuko banu, zuzeneko Guraso-egoera egongo litzateke ihardunean niregan. Nire aitak ere beti egiten du botaka odola ikustean. Aitzitik, egoeraren kontrola hartzen badut, telefonoz anbulantzia eskatu eta, oro har, biktimei laguntzen saiatzen banaiz, orduan nire zeharkako Guraso-egoera dago ihardunean. Badakit gurasoak nitaz harro egongo direla zer egin dudana esaten diedanean.

Era beretsuan, bi alderdi daude Haur-egoeran ere: Haur Moldatuarena eta Berezko Haurarena. Izenek adierazten duten bezala, Haur Moldatua gurasoek nahi bezala jokatzeko duena da, edo gurasoak manipulatzeko ikasi duena berak nahi duena egiteko. Berezko Haurra espontaneo eta sortzailea da. Ez dago manipulazio-elementurik egoera honetan.

Zerk motibatzen gaituen

Hori da gizakiaren nortasunaz Bernek egiten duen xehekapenaren laburpena. Arazoak pertsona batek beste batekin topo egiten duenean hasten dira, edo, are okerrago dena, beste askorekin topo egitean, ikasgelan adibidez. Demagun honako egoera hau: beltz batek ezagutzen duen zuri batekin topo egiten du kalean. “Kaixo!” esaten dio beltzak, irribarretsu. Zuriak ez dio ezer erantzuten, baizik eta hotz begiratu beltzari eta aurrera jarraitzen du. Beltza lur jota eta kezkatuik gelditzen da, besteak ez duelako onartu edo aintzat hartu. Analisi Transakzionalean, errekonozimendu horri *onarpena* (stroking¹) deitzen zaio, eta giza jokaeraren motibatzailearik garrantzitsuentzat hartzen da. Egoera berean dagoen jendea hasten denean elkarren artean harremanetan, orduan gertatzen da *onarpenik* onena. Beste era batera esanda, ni zurekin elkartzen banaiz eta biok Heldu-egoeran baldin bagaude, topaketa hori biontzat atsegingarria izateko aukera dago. Baina niregan Haur-egoerak agintzen duen eta zuregan agintzen ez duen momentuan elkartzen bagara, hondamendi hutsa izan liteke! Egoera ezberdinetako jendea elkarren artean harremanetan hastea beti izan liteke arriskutsua. “Transakzio gurutzatu” hauek bereziki zailak gerta litezke ikasgelan.


Arrazoi asko daude jendea irakasle bihurtzeko, baina garrantzitsuenetarikoa bat beti arrazoi duzun egoeran egoteak ematen duen gozamina dela esango nuke.

Hau horrela izanik, hurrei nahiz helduei ingelesa irakasten badiegu, hizkuntz zuzentasunaren epaile bihurtuta egoten gara ia beti. Eguneroko bizitzan, zuzentasunaren epaileak guraso eta irakasleak izaten genituen normalean. Syllabus-diseinu eta material berriari buruzko azken pentsamoldeak irakasleak dominaturiko klasearen antolamendutik urruntzen saiatu dira, baina ohitura zaharrak, irakasle nahiz ikasleen aldetik, kostata desagertzen dira. Gramatika-itzulpena baztertzea errazagoa da, munduan zehar onartua dagoen irakaskuntzaren “in loco parentis” ikuspegia baztertzea baino.

Bestalde, irakaslea Guraso-egoeran egoten bada bere lan-bizitza gehienez, orduan bere ikasleengandik espero duen erantzuna Esaneko Haur Moldatuarena izango da. Berezko Haur bihurriaren egoerara jotzen ausartzen den ikasle oro jokoa arazogabe zertzeko arriskutsutzat hartuko da. Ikasgelan gertatzen den *onarpena*, gertatzen bada, edo amore ematea edo abusatzea izango da, azken hau esplikatzen delarik edozelako *onarpena* hobe delako batere eza baino.

Zer egin beharko genukeen

Gure irakaslanean Guraso/Haur-erlazioa aldatzea arazo praktikoa da. Ikasle nahiz irakasleek egiten dituzten jokoak ezagutzea inplikatzeko du, eta maila bereko *onarpenaren* garrantzia aitortzen du. Aldaketarako aukerarik gehiena klaseko produkzio librearen etapan dagoela iruditzen zait niri. Klase baten forma honela errepresentatzen dugu (.2):



Triangeluaren goiko erdiak gidaturiko ikaskuntza eta irakasleak gainikuskatutako praktika errepresentatuko lituzke, baina ikasleen behar eta eskakizunek gidaturik, ahal denean behintzat. Gainerako denbora produkzio libreko lanen batean igaroko litzateke, ikasleek elkarrekin, bikoteka edo taldeka, lan eginez. Puntu honetan aldatu egiten da irakaslearen rola, nolabaiteko erreferentzi iturri bizia bihurtzen delarik, ikasleak libre utziz beren lanak egiaztatu edo laguntza eskatzeko, beraiek nahi bezala. Beste era batera esanda, aske daude Guraso/Haur-egoeraren bortxapenetatik.

Feedback-etapan, elkarren artean eta irakaslearekin berdintasun-mailan erlazioa daitezke eta barrea, desadostasuna, adostasuna, ulerkortasuna, jatorri bat baino gehiagotatiko zuzenketa... bezalako erreakzioak berenganatzen dituzte, horrela asebetz izan dezaketen *onarpen*-behar oro. Beste inplikazio bat guretzat, irakasle garen aldetik, hau da: ikasleei ematen dizkiegun erantzunak sarritan mugatuegiak izaten dira, "hizkuntz zuzentasunera" mugatzen bait ditugu normalean, kontutan izan gabe ikasleek gizabanakotzat onartuak izateko duten beharra.


Uste dut Analisi Transakzionalaren teoriek erizpide-multzo berria ematen digutela gure irakaslanaren arrakasta, edo porrota, ebaluatzeko. Irakasle batzuei, gainera, oinarria eman die ez bakarrik nola irakatsi erabakitzeke, baita zer irakatsi erabakitzeke ere. *Onarpena* modu askotara gertatzen da, baina hizkuntz errekonozimendua da gainerakoekin ditugun harreman gehienen oinarria. Hau honela izanik, gerta liteke zentzu horretan hizkuntzaren funtzio batzuk askoz bitalagoak izatea beste batzuk baino. Gure ikastaroak duen *onarpen*-ahalmenaz jabetzea benetan lagungarri izango da gure eraginkortasuna neurtzeko.

Carolén kexatze-jokoa (ZGBN) bere buruaz zituen sentipen negatiboetatik sortua zen. Batzuetan, aurkitzen zuen "Orain harrapatu zaitut!" delako jokoa jolasten zuen irakasleren bat, eta biek eskola-eguna pasa zezaketen elkarri arazoak sortzen.

Irakasleak: *Gaur gauean egin behar duzue etxean...*

Ikasleak (biharamunean): *Kanpora irten nintzen eta ezin izan nuen ezer egin atzo.*

Irakasleak: *Orduan, klaseak amaitzean geratuko zara egiten, ezta?*



Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Oharrak

- * Ingelesezt "Games pupils play", *Practical English teaching* (2. bol., 4. zenb., 1982.eko ekaineko alea) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

© Mary Glasgow Publications Ltd., London.

- 1 Stoking: Termino berezia Analisi Transakzionalaren baitan. Berez, "laxtante" edo "ferekatze" esan nahi du, eta horrela itzuli ohi da gaztelaniaz (caricia). Kontutan izanik gizarte-harremanetan bi pertsonen arteko errekonozimendu edo aintzat hartzea adierazteko erabiltzen dela, "onarpen" hitzaz euskaratzea erabaki da, eta horrela agertzen da testu honetan, kurtsibaz gainera.
- 2 Zuzendaritzaren oharra.- Azkenean "Ikasleen joko-jolasak" izenburuaz itzuli dugu jatorrizko "Games pupils play", nahiz eta itzultzaileak "Ikasleen jokoak" itzuli; izan ere, artikuluan zehar ez bait daude argi jokoa eta jolasaren arteko mugak,

itzulpenean behin eta berriro ikusteko aukera izango dugunez. Zalantzak zalantza, itzulpena zegoen-zegoenean utzi dugu gainerakoan.

3 Diagramen egilea: Jill Dodd.

Bibliografia

- Eric Berne.** 1961. *Transactional Analysis in Psychotherapy*. Evergreen.
- Eric Berne.** 1975. *What do You Say after You Say Hello*. Corgi.
- Earl Stevick.** 1976. *Memory, Meaning and Method*. Newbury House Publishers Inc. Ikus bereziki 5. kapitulua.

Autorea

Lorraine Weller, bere kontura lan egiten duen irakasle eta irakasle-trebatzailea da. Edward Arnold argitaletxean beste batzuekin batera, *Getting Through* oporretarako metodoa argitaratu zuen.